



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Investigación Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Investigación

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2019ko azaroaren 27ko EBAZPENA, 2019-2020 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen lehen, eta bigarren berritzeak ebazten dituen.

Laguntzak berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren lehenengo berritzea onartzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea ematea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.



Hirugarrena.- Laguntza berritze horien zenbatekoak ordaintzea xedapen honen I. eta II eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroei, ekainaren 4ko Aginduak, 6.6 artikuluan, ezartzen duen moduan.

Laugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, 2019ko ekainaren 4ko aginduak xedatutakoak izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 27a.



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
Adolfo Morais Ezquerro